



A Y U N T A M I E N T O
DE LA VILLA DE

31890 **BETELU**
(Navarra)
BETELUKO UDALA

2024ko urriaren 29an egindako Beteluko Udalbatzaren osoko bilkuran, hitzez hitz transkribatzen den akordio hau hartu zen:

4.- GESERLOCAL SL BETELUKO UDALEKO ENTE INSTRUMENTAL DEKLARATZEA

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFk Sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie. Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren arabera esleitze akordioen bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzzaileei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

- 1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.
- 2.- NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.
- 3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean.

Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,

ERABAKI DA:

1. Geserlocal S.L. Beteluko Udalaren toki entitatearen erakunde instrumental deklaratzeari aipaturiko Foru Legearen 8. artikuluko xedatutakoaren ondorioetarako.
2. Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.

Honako erabakia NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.



AYUNTAMIENTO
DE LA VILLA DE

31890 **BETELU**
(Navarra)
BETELUKO UDALA

Jakinarazten dizut jakin dezazun eta ondorioak izan ditzan, eta ohartarazten dizut erabaki honen kontra errekurtsio hauetako bat jar daitekeela: a) Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik; b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Nafarroako Epaitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina; edo, c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Epaitegiari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta hilabeteko epean.

Betelun, 2024ko azaroaren 18an.

Alkatea

Idazkaria,

Lorenzo Zubillaga Goicoechea

Joanes Aleman Olló